

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

“MEMORIES” da gure proiektu berriaren izena.

GURE enpresa sortzea pentsatu dugu MEMORIES izeneko produktua ekoizteko. Baina, zertan datza proiektu hau? Gaur egun, argazki guztiak mugikorrean gordetzen ditugu baina jendeak ere argazki fisikoak edukitzea gustuko ditu eta lan ikaragarria da ordenagailura pasatzen egotea gero denda batean inprimatzeko. Horregatik, mugikorrean bertan inprimatzeko aukera izatea pentsatu dugu. Hau da, aurikularrentzako sarrera bat dagoen bezala edo mugikorra kargatzeko sarrera dagoen bezala, argazkiak inprimatu ahal izateko sarrera bat egotea. Laburbilduz, mugikor normal bat izango litzateke, argazkiak inprimatzeko aukera izango duena eta mugikorretik argazkia jarraian ateratzeko.

Merkatuan produktu hau ekoiztean lehenengoak izango gara, hau da, produktu berri bat sartuko dugu merkatuan. Gainera eskuragarritasunari dagokionez online denda bat izango denez mundu osora bidaltzeko gai izango gara.